

Semana de la moda de Getxo

# 34 GETXO MODA

Getxoko modaren astea

DISEINATZAILE  
BERRIEN LEHIAKETA

16. EDIZIOA

ANTOLATZAILEA:

Getxo  Enpresa

BABESLEAK:



EUSKADI  
BASQUE COUNTRY



LAGUNTZAILEAK:

ALL

rafael  
Matías  
*Tejidos desde 1957*

  
WAIXO  
FASHION & DIGITAL SOLUTIONS

*CPTex*  
Producción textil  
Bilbao

# #Getxo\_Moda\_2019

## DISEINATZAILE BERRIEN LEHIAKETA

---

### OINARRIAK

GetxoEnpresak DISEINATZAILE BERRIEN LEHIAKETAREN 16 EDIZIORAKO deialdia egin du, GETXOMODA 2019 ekimenaren barruan.

**Helburuak:** moda diseinatzaile berrien lana zabaltzea eta sustatzea, emakumeentzako, gizonentzako edo bientzako bildumak egiten dituztenak. Bertako talentua sustatzea.

**Parte har dezaketenak:** Diseinatzaile berriak, edozein adin eta nazionalitatekoak.

**Gaiak eta bildumak:** gaia librea da. Diseinatzaile bakoitzak bilduma original bat edo batzuk aurkeztu ahalko ditu (bilduma hori beste lehiaketa batzuetan aurkeztutakoa izan daiteke); gutxienez pasarelarako 8 estilo izango dira.

**Lehiaketaren faseak:** bi fase izango dira: alde batetik, aurretikoa, dosierrak eta proposamenak aurkeztekoa, bestetik, azken fasea, Getxoko Modaren eta Estilismoaren Astearen barruan. Hor, hautatutakoek beren proposamena aurkeztuko dute, desfile formatuan.

### LEHENENGO FASEA : AURREHAUTAKETA PROZESUA

Hautagai bakoitzak hauek aurkeztu beharko ditu ABUZTUAREN 26a baino lehen, 00:00etan, eta PDF formatuan:

Partaidetza-fitxa beteta.

Bildumaren eta inspirazio-iturria - moodboard.

Deskribapena edo bildumaren lineak.

Aurkeztu beharreko bildumaren 5 zirriborro.

Erabiliko diren materialen deskribapena.

Gutxienez, 2 estiloko argazkiak, amaitutako jantziekin.

Aurreko lanen dosierrak.

---

Egilearen CV

Biografia idatzia.

Epaimahaiarentzat garrantzitsua den beste edozein informazio.

**AURREHAUTAKETA.** 2019ko GETXOMODAKo taldeak alderdi hauek baloratuko ditu: proposamenaren kontzeptu orokorra (10 puntu), sormena eta originaltasuna (10 puntu), koherentzia eta bideragarritasuna (10 puntu), eta kalitatea eta akabera (10 puntu)

**Gehienez zortzi (8) proposamen aukeratuko dira.** Erabakia apelaezina izango da, eta jakinarazpena helbide elektronikoz eta telefonoz jakinaraziko zaizkie hautagaiei. Hautatutakoak hurrengo fasera igaroko dira eta, hor, beren bildumak aurkeztu beharko dituzte, pasarela formatuan. Gerta daiteke aurrehautaketa esleitu gabe geratzea.

## BIGARREN FASEA : DESFILEA ETA GALANTA BEKA

Finalistek **azaroaren 6 edota 7an** aurkeztuko dituzte bere proposamenak, desfile formatuan, Diseinatzaile Berrien 16. Pasarelan.

Pasarela proposamen bakoitza, gutxienez, **8 estiloz** osatuta egongo da.

GETXOMODAKO taldeak tutorizazio prozesu bat egingo du hautagai bakoitzarekin, bere bildumak erakusketari begira, eta horretarako koreografoak, estilistak, ile-apaintzaileak eta modelo profesionalak izango ditu lagun.

**RAFAEL MATÍAS** opari bat egingo dio eta aukeratutakoak bere proposamenaren ekoizpenerako laguntza bezala 50 euroko poltsa

### GETXO GALANTZA BEKA

Pasarela egiten den bitartean, moda, diseinu eta kultura alorretako prestigio handiko profesionalak osatutako epaimahaiak, arlo hauek baloratuko dituzte: lan-prozesua (10 puntu), proposamenaren kontzeptu orokorra (10 puntu), sormena eta originaltasuna (10 puntu), eszenaratzea (10 puntu), koherentzia (10 puntu) eta azken akabera (10 puntu).

# #Getxo\_Moda\_2019

## DISEINATZAILE BERRIEN LEHIAKETA

---

Amaierako galaren barruan, GETXO GALANTA BEKA nork irabazi duen adieraziko da. Beka horrek barne hartzen ditu:

- Hiru hilabeteko Bilboko management eta ikus-entzunezko ekoizpenean espezializatutako diziplina anitzeko ALL SPACE espazioan.
- Ekoizpen poltsa Waixo enpresan inprimatze digitalean espezializatua.
- Mentoring CPTExn (Bolueta Ehungintzako Produkzio Zentroa).
- Argazki-kanpaina profesional bat egitea.
- Bere bildumaren sustapena sareetan eta komunikabideetan.
- Partaidetza GetxoModa 2020ko 35. edizioko desfileetan.

Bozetoak eta bildumak aurkeztea eta itzultzea:

**Helb. el.:** eduardo@getxomoda.com

**Posta arrunta:** SF40, San Frantzisko kalea, 40, 48003, Bilbo, Bizkaia.

## IZENA EMATEKO FITXA

**IZENA:**

**ABIZENAK:**

**HELBIDEA:**

**POSTA-KODEA:**

**TELEFONO-ZENBAKIA:**

**HELBIDE ELEKTRONIKOA:**

**PROPOSAMENAREN IZENBURUA:**

---

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Antolatzaileek GetxoModa 2019ko 34. edizioa amaitu arte izango ditu aurkeztutako bozeto eta bilduma guztiak, eta ekitaldia amaitu eta 10 egunera jaso ahal dira, garraioa zorretan dela. Adierazitako epean ez badira materialak jaso, egileak bere jabetzari uko egiten diola ulertuko da, antolatzaileen alde. Horrela, libreki erabili ahalgo dute, jabeak erreklamatzeko aukerarik izan gabe. Parte-hartzaileek 2019ko urriaren 30 baino lehen aurkeztuko dituzte bildumak, zuzenean. Antolatzaileek, gutxieneko kalitate-maila betetzen ez dituzten bildumak deuseztatzeko eskubidea izango dute.

Lehiaketako parte-hartzaileek ordainduko dituzte bozetoak eta bildumak bidaltzeko/itzultzeko gastuak.

Antolakuntzak ez du erantzukizunik izango parte-hartzaileek lehiaketan entregatutako materialek jasan dezaketen kalteen gainean (adibidez, garraioaren, manipulazioaren edo antzeko zerbaiten ondorioz).

Pasarelan aurkeztu ahal izateko, bilduma finalistek estandar honi jarraitu beharko diote: emakumeen neurria, 36/38, eta gizonen neurria, 40/42.

Bilduma finalistak aurkezterakoan diseinuen estilismoari lagunduko dioten osagarriak eta oinetakoak barne hartu beharko dira.

Hautatutako diseinatzaileek hitzematen dute Getxomoda-ko taldeak eta ekitaldiko estilistek eta koreografoek ezarritakoari jarraituko diotela.

Hautatutako diseinatzaileak azaroaren 6 eta 7an bertan izango dira.

GETXOMODA 2019 SARIA irabazten duen bildumaren diseinatzaileak onartu egingo du Getxo Enpresa entitate antolatzaileak sariari hedapen zabala ematea, eta hedabideek eskatutako elkarrizketa eta erreportaje oro egiteko prest egongo da, eta Getxo Moda 2019ko (34. edizioko) Diseinatzaile Berrien Lehiaketako 16. edizioko bilduma irabazlearen promozioa egiteko irudi-eskubideak erabiltzeko baimena emango du.

Lehiaketan parte hartzen dutenek antolakuntzari aurkeztutako diseinuak erabiltzeko eskubideak lagatzen dizkiote horiek zabaltzeko; horrela, edozein hedabidetan argitaratu ahal dira, eta eskubidea izango dute Getxo Moda 2019ko 34. edizioan aurreikusten diren beste erakusketa eta ekintza burutzeko.

Lehiaketan parte hartzen dutenek baimena emango dute euren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko Legearen indarreko legeriaren esparru juridikoan tratatzeko; horrez gain, emandako datuak, egiazkoak, zehatzak, osoak eta oraingoak direla bermatzen dute. Betebehar hori ez betetzeagatik eragindako edozein kalteren, zuzena edo zeharkakoa, erantzule izango dira.

Horrez gain, Getxo Enpresak eskubidea izango du oinarri hauetan ezarri ez den beste edozein konturi buruz erabakitzeko, erakunde antolatzailea den aldetik.

2019ko Diseinatzaile Berrien Lehiaketaren 16. edizioari buruzko informazioa:

T.: 64782027

@: eduardo@getxomoda.com

ADIERAZPENA:

NIK,.....k, ..... nore proposamena aurkezteko baldintzak irakurrita, onartzen dut Getxo Moda 2019 Diseinatzaile Berrien Lehiaketaren 16. edizioan parte hartzea, eta oinarri hauek onartzen ditut.

.....n,.....(e)ko.....(e)an

SINADURA